**2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

**Saila:** 40 NEKAZARITZA

**Programa:** 45 MENDIAK, FLORA ETA FAUNA

**LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020**

**Departamento:** 40 AGRICULTURA

**Programa:** 45 MONTES, FLORA Y FAUNA

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

Mendi Zerbitzua Araban dauden **mendietako berezko ekosistemak** zaintzeaz eta ekoizteaz arduratzen da programa honen barruan; mendi horiek 183.826 ha-ko azalera hartzen dute Araban, hau da, Arabako lurraldearen % 60,52; eta mendi publikoen hedadura, bestalde, 143.384 ha-koa da (mendien azaleraren % 78). Horrez gain, Mendi Zerbitzuak bere gain hartzen ditu **ehiza eta arrain baliabideak** bultzatzeko eta mantentzeko lanak, Arabako ur ibilguetako bizitza urtarraren kalitateari eusteko zereginak barne hartuta.

**Basoko kudeaketa jasangarria**ren helburua da mendi sistemetatik produktu eta zerbitzuetan errentagarritasun handiena lortzea, haien barruan funtsezkoa den bat sartuta: mendiko ekosistemekin loturiko biodibertsitate biologikoaren mantentzea, alegia.

Programaren aurrekontu partiden bitartez hurrengo ekintza hauek bideratzen dira: baso sistemak ahalik eta ondoen mantentzea, unada hautatuetan haziak hartzetik landare egokiak lortu arteko lanak; basoen berezko birsorkuntza sustatzea (Araban garrantzia handia du, mendi publikoek hartzen duten azalera handiagatik); **osasun egoeraren** eta oreka biologikoaren jarraipena egitea; basoetako suteek duten eragina murrizteko **prebentzioa**, zaintza eta lanak, eta suteak ebakitzeko eremuak sortzea.

Arabaren ondarekoak diren mendietan eta Arabako Foru Aldundiak zuzeneko partzuergoan dituen mendietan egiten diren lanak beste hauetarako ematen diren dirulaguntzekin osatzen dira: nola mugak ezartzea, mugarriak jartzea eta plan teknikoak, hala toki erakunde txikiek eta partikularrek kudeatzen dituzten proiektu eta lanak; betiere, Europar Batasunaren arauen ondoriozko laguntza planen arabera; horretarako izapidetzen baitira planetan aurreikusitako dirulaguntzak.

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

El Servicio de Montes atiende en las distintas facetas de este programa a las actividades de conservación y producción de los ecosistemas propios de los **montes**, que ocupan en Alava una superficie de 183.826 ha, que supone el 60,52% del territorio alavés, siendo la extensión de montes públicos de 143.384 ha (el 78% de la superficie de monte), así como a las facetas de promoción y mantenimiento de los **recursos cinegéticos y piscícolas**, incluyendo la permanencia de la calidad de la vida acuícola en los cursos y planos de agua de Alava.

La **gestión forestal sostenible** tiene como objetivo a obtener la máxima rentabilidad de los sistemas montanos en productos y servicios, incluyendo en éstos uno tan fundamental como es el mantenimiento de la biodiversidad biológica asociada a los ecosistemas montanos.

La consecución del mejor estado posible de los sistemas forestales, desde la obtención de semillas de rodales selectos hasta el logro de las plantas adecuadas, el fomento de la regeneración natural de los bosques, de tanta importancia en Alava dada la extensa superficie de montes públicos, el seguimiento del **estado sanitario** y del equilibrio biológico, la **prevención,** vigilancia y obras que disminuyan la incidencia de los incendios forestales y la creación de áreas cortafuegos se canalizan a través de las partidas presupuestarias del programa.

Los trabajos en los **montes patrimoniales** de Alava y en los **montes consorciados** directamente por la Diputación Foral, se complementan con las **subvenciones** que se conceden para deslinde, amojonamiento, ordenación y planes técnicos, así como para proyectos y obras gestionados por las Entidades Locales Menores y los Particulares, de conformidad con los **Planes de Ayudas** derivados de las normas reglamentarias de la Unión Europea, a cuyo efecto se tramitan las subvenciones previstas en los planes.

## 2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 40 NEKAZARITZA

**Programa:** 45 MENDIAK, FLORA ETA FAUNA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2020

**Departamento:** 40 AGRICULTURA

**Programa:** 45 MONTES, FLORA Y FAUNA

Funtzio teknikoen eta kontrolaren barruan, titulartasun publikoko mendietan hostozabalen zuraren 33.500 metro kubiko (nagusiki *Fagus sylvatica* eta *Quercus pirenaica*) eta koniferoen zuraren 30.000 metro kubiko (nagusiki *Pinus radiata* eta *Pinus sylvestris*) seinalatu ziren.

Partzuergoko eta ondareko mendietan 7.900 metro kubiko makal egur eta 20.000 metro kubiko konifero seinalatu ziren.

**Basoko suteei aurrea hartzea eta mendiak haietatik babestea** eta basoen osasun egoeraren jarraipena –hala dagokionean, izurri eta gaitzen tratamendua barne delarik– Arabako mendien baso kudeaketaren atal garrantzitsu bat dira.

Zerbitzu honek egiten dituen gainerako jarduerak honako hauek ditugu: ehiza eta arrain populazioak aztertzea, beraien ustiapena planifikatzea, ehiza eta arrantza federazioekin eta ehiztarien eta arrantzaleen elkarteekin lankidetzan aritzea, eta zaintza lana egitea, landa ingurunearen eta ingurune urtarraren baldintzak basoko bizitza garatzeko egokiak izan daitezen.

2020. urtean, Aldundiaren lehentasuna Arabako ekonomiaren susperraldia izan da, COVID-19aren ondorio negatiboak arintzeko. Horretarako, susperraldi ekonomikorako plan bat onartu du maiatzaren 26ko Foru Gobernu Kontseiluaren 213/2020 Erabakiaren bidez, eta horretara bideratu ditu bere baliabide ekonomiko gehienak; haratara, hasiera aurreikusitakoak baino ekintza gutxiago gauzatu dira.

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE MAILA

Ondoren programaren helburu bakoitzari esleitu zitzaion zenbakiaren arabera azalduko dugu helburu horren gauzatze maila.

*1. Basoko jabetza publikoaren defentsa.*

Baso Jabetza Publikoaren defentsa Laudioko Udaleko 73. "Larraño Handia" eta 74. "Larraño Txikia" onura publikoko mendiak mugatzea eta mugarriztatzea onartzean gauzatu zen.

Como parte de las funciones técnicas y de control, en montes de titularidad pública se señalaron unos 33.500 metros cúbicos de madera de frondosas (principalmente *Fagus sylvatica y Quercus pirenaica*) y unos 30.000 metros cúbicos de madera de coníferas (principalmente *Pinus radiata y Pinus sylvestris*).

En montes consorciados y patrimoniales se señalaron unos 7.900 metro cúbicos de madera de chopo y unos 20.000 metro cúbicos de coníferas.

La **prevención y defensa del monte** contra los incendios forestales y el seguimiento del estado sanitario de los bosques, incluyendo en su caso el tratamiento de plagas y enfermedades, constituyen una parte importante de la gestión forestal de los montes alaveses.

El estudio de las poblaciones cinegéticas y piscícolas, la planificación de su aprovechamiento, la colaboración con las Federaciones de Caza y Pesca y las Asociaciones de Cazadores y Pescadores, así como la vigilancia y mantenimiento de las condiciones apropiadas del medio rural y acuícola para el desarrollo de la vida silvestre completan las actividades de este Servicio.

Cabe destacar que en  el año 2020 la prioridad de la Diputación ha sido la recuperación económica de Alava para paliar los negativos efectos de la COVID-19, para lo que ha aprobado un Plan de recuperación económica mediante Acuerdo 213/2020 del Consejo de Gobierno Foral de 26 de mayo, al que destinó gran parte de sus recursos económicos, ejecutándose em consecuencia menso acciones que las inicialmente previstas.

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

A continuación exponemos el correspondiente grado de cumplimiento en función del número que se le asignó a cada objetivo del Programa.

*1. Defensa de la Propiedad Pública Forestal.*

La defensa de la Propiedad Pública Forestal se materializó en la aprobación del deslinde y amojonamiento de los Montes de Utilidad Pública número 73 “Larraño Grande” y número 74 “Larraño Pequeño” de la pertenencia del Ayuntamiento de

Larrinbeko onura publikoko mendiak mugatzeko espedientea jendaurrean jarri zen.

Era berean, Arespalditzako Administrazio Batzordearen 46 zenbakiko onura publikoko mendiaren mugaketa apeatzen jarraitu zen.

Aspuru herriak Larreako mendietan eskubideak erreklamatzeko eskatu zuen 1171/2018-C prozedura judizialaren barruan, 2020ko irailaren 30ean, planteatutako gaiei erantzuteko txostena bidali zitzaion Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko 1 zenbakiko Epaitegiari.

*2. Baso sute, izurrite eta gaitzak eragozteko jardunak.*

Mendi publiko askotan basoetako suteak prebenitzeko eta suteak ebakitzeko eremuak mantentzeko baso obrak eta lanak egin ziren. Basozainak taldeetan egon ziren urteko asteburu eta jaiegun guztietan eta udako lan egunetako arratsaldeetan. Guztira, 8 baso sute egon ziren, eta baso azalerako 7,46 hektarea kaltetu ziren. Datu horiek jaitsiera dakarte, bai sute kopuruari dagokionez, bai erretako azalerari dagokionez, 2019koekiko. Hala ere, datozen urteetan kopuru horiek ez handitzea lortzeak ahalegin handiagoa egitea ekarriko du, klima aldaketaren aurreikuspenengatik, faktore erabakigarria baita baso suteen garapenean.

Prebentzio ekintzen artean sartzen dugu, halaber, nekazaritzako eta basogintzako eragiketetan suaren erabilera kontrolatzea. Horretarako, basozainek 1.363 baimen izapidetu zituzten nekazaritzako hondakinak erretzeko, eta beste 45 espediente ere izapidetu ziren nekazaritzako eta basogintzako beste hondakin mota batzuk erretzeko.

*3. Basoen osasuna.*

2020. urtean, COVID-19aren agerpenak eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma egoera deklaratzeak zuzeneko eragina izan dute baso osasunaren arloan. Atal honetara bideratutako aurrekontu partida beste helburu

Llodio.

Se realizó la exposición pública del expediente de deslinde de los Montes de Utilidad Pública de Larrimbe.

Asimismo se continuó con la fase de apeo del deslinde del MUP nº 46 de la Junta Administrativa de Respaldiza.

Dentro del procedimiento judicial nº 1171/2018-C, instado por el pueblo de Aspuru sobre reclamación de derechos en los montes del término de Larrea, con fecha 30 de septiembre de 2020, se remitió al Juzgado de Primera Instancia Nº 1 de Vitoria-Gasteiz, informe de respuesta a las cuestiones planteadas

*2. Actuaciones para evitar incendios, plagas y enfermedades forestales.*

Se realizaron obras y trabajos selvícolas de prevención de incendios forestales, de mantenimiento de áreas cortafuegos en numerosos montes públicos. La guardería forestal estuvo en situación de retén durante todos los fines de semana y festivos del año y durante las tardes de los días laborales de verano. Tuvieron lugar un total de 8 incendios forestales, resultando afectadas 7,46 hectáreas de superficie forestal. Estos datos suponen un descenso, tanto en número de incendios como de superficie quemada, respecto a los de 2019.Sin embargo lograr que estas cifras no se incrementen en años venideros supondrá un mayor esfuerzo debido a las perspectivas de cambio climático, factor decisivo en el desarrollo de los incendios forestales

Entre las acciones preventivas incluimos, también, el control del uso del fuego en operaciones agroforestales, para lo que se tramitaron, por parte de la guardería forestal 1.363 autorizaciones de quemas de residuos agrícolas, más otros 45 expedientes de autorización de quema de otro tipo de restos agroforestales.

*3. Sanidad Forestal.*

En el año 2020 la aparición de la COVID-19, y la declaración del Estado de Alarma por el Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, ha tenido efecto directo en materia de sanidad forestal. La partida presupuestaria destinada a este apartado se desvió a

batzuetara desbideratu zen, eta ezin izan da gauzatu gastu ekonomikoa dakarren ekintzarik.

Beste urte batzuetako ereduari jarraituz, 2020ko otsailean, *Thaumetopoea pityocampa* pinuaren prozesionariaren zorrozabalen prospekzioa egin zen Arabako Lurralde Historikoko koniferoen masetan. Basozaintzak Pinus spp (nagusiki Pinus radiata) generoko 5.066 ha aztertu zituen, infestazio maila 0tik 5era bitarteko eskalan boltsoi kopuruaren arabera baloratuz. Geroago onartu zen beldarra izurritetzat jotzea eta haren populazioak kontrolatzeko borrokaren onura publikotzat jotzea, baina ezin izan da aire tratamendurik egin hurrengo urteetan bezala.

Hala ere, 2020ko abenduan, prozesionariaren aurkako lurreko tratamendu bat egin zen Menagaraiko onura publikoko bi menditan eta eremu bereko partikularren zenbait menditan. GALCA SL enpresa galiziarrak egin zituen lanak, 70 ha inguruko azaleran.  AFAk babesa eman zion eta bertan egon zen lanetan.

2020an, koniferoen akikulen gaixotasun kriptogamikoek kezka sortzen jarraitu zuten:  banda marroia *(Lecanosticta acicola)* eta banda gorria *(Dothistroma septosporum)*; hala ere, Araban, haren eragina txikiagoa izan da EAEko lurralde mugakideetan baino, eta nabarmen txikiagoa izan da 2018an eta 2019an izan zuen eraginarekin alderatuta.

Patogeno horien jarraipena eta kontrola egiteko jarduera planaren barruan jasotako ekintzak garatzean, AFAk espora tranpen plakak biltzeari utzi zion. Aurten NEIKER arduratu da.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak uko egin zion 2020/07/28an oxido kuprosoaren % 75 [WG] p/p, mendietan, koniferoen masetan, aireko bitartekoen bidez erabiltzeko salbuespenezko baimen eskaerari, eta, ondoren, beste eskaera bat egin zitzaion substantzia aktibo bera erabili ahal izateko, baina, beste horretan, lurretiko baliabideen bidez erabiltzeko. Ministerioak 2020/08/04an eman zuen baimena, baldintza jakin batzuen pean, eta Arabako Lurralde Historikoan haren erabilera arautu zen honen bidez: *"303/2019 Foru Agindua,*

otros fines y no se han podido ejecutar acciones que conllevaban un gasto económico consigo.

Siguiendo el modelo de otros años, en febrero de 2020 se realizó la prospección de los bolsones de la procesionaria del pino (*Thaumetopoea pityocampa*) en las masas de coníferas del Territorio Histórico de Álava. La guardería forestal prospectó un total de 5.066 ha de masas del género *Pinus* spp. (principalmente *Pinus radiata*) valorando el nivel de infestación según la cantidad de bolsones en una escala del 0 al 5. Posteriormente se aprobó la declaración de la oruga como plaga y la de utilidad pública de la lucha para controlar sus poblaciones, pero no se ha podido realizar un tratamiento aéreo como en años posteriores.

No obstante, en diciembre de 2020 se ejecutó un tratamiento terrestre contra la procesionaria en dos Montes de utilidad Pública de Menagaray y en varios montes de particulares en la misma zona. Los trabajos los ejecutó la empresa gallega GALCA, S.L. en una superficie aproximada de 70 ha. La DFA apoyó y estuvo presente durante los trabajos.

En el 2020, siguieron causando preocupación las enfermedades criptogámicas de las acículas de las coníferas: banda marrón (*Lecanosticta acicola*) y banda roja (*Dothistroma septosporum*), si bien su afección en Álava ha sido menor que en los Territorios limítrofes de la CAPV y significativamente menor también respecto a su afección en 2018 y 2019.

En el desarrollo de distintas acciones contempladas dentro del Plan de Actuación para el seguimiento y control de estos patógenos, la DFA dejó de hacer el trabajo de recogida de las placas de las trampas de esporas. En este año se ha encargado NEIKER.

Tras la negativa del Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación a la solicitud de autorización excepcional para el uso en masas de coníferas en montes por medios aéreos de oxido cuproso 75% [WG] P/P el 28/07/2020, se volvió a realizar una nueva solicitud de la misma sustancia activa pero esta vez por medios terrestres. El Ministerio concedió la autorización el 04/08/2020, bajo ciertas condiciones y se reguló su uso en el THA por "*Orden Foral 303/2020, de 30 de septiembre, que*

*apirilaren 16koa, mendietako koniferoei eragiten dien gaixotasun kriptogamiko hostogabetzaileei lurretiko aplikazioen bitartez aurre egiteko ehuneko 75 [WG] P/P oxido kuprosoan oinarrituta formulatutako produktu fitosanitarioak erabiltzeko jarraibideak ezartzen dituena".*

AFAk ez zuen gaixotasun horren aurkako tratamendurik egin, baina zenbait jabek 2020an egin zituzten, gehienak Arabako Basogintza Elkarteak koordinatuta eta GALCA S.L. enpresa galiziarrak exekutatuta. BEITIA NATURLANAK S.L. enpresak ere lan egin zuen. Tratamendua egin aurretik, interesdunek 303/2020 FAri erantsitako jakinarazpena bidali zioten Mendi Zerbitzuari.

Mendi Zerbitzuak NEIKERrekin elkarlanean jardun zuen helikoptero bidezko aireko plan esperimentala garatzen Euskadiko ongarridun pinu masetan. Hainbat tratamendu egin zituzten Bizkaiko eta Gipuzkoako lursailetan. Araban, Aramaioko mendi partikularretan eta Luiaondoko ondare mendietan tratamenduak egitea aurreikusi zen. Azkenean, arrazoi meterologiko eta logistikoengatik Aramaioko 14,5 ha-tan bakarrik egin ziren lanak eta Luiaondoko 65 ha inguru egin gabe geratu ziren. Azken azalera hori 2021ean tratatzea aurreikusten da. Bestalde, Murgan hainbat produkturekin esperimentazio lanak egiten jarraitu da lurreko bitartekoen bidez.

2020an, Basogintzako Aholku Taldeko kide izaten jarraitu dugu, non basogintza eremuarekin lotutako hainbat gai lantzen baitira, baina, ia esklusiboki, aipatutako azikulen gaixotasun kriptogamikoetan oinarritu da. Elkarlanean jarraitu dugu Gipuzkoako eta Bizkaiko aldundietako mendi zerbitzuetako arduradunekin, Eusko Jaurlaritzakoekin, Euskal Herriko Basogintza Elkartekoekin eta NEIKER, HAZI, USSE eta Baskegur elkarteetako arduradunekin. 2019an Limogesetik (Frantzia) ekarritako *Cryptomeria japonica*ren aldaxkak oraindik ere gizentzeko fasean daude. Aldaxka horiek errotzeko eta hazteko zailtasunak dituzte, Arabako Foru Aldundiaren Eskalmendiko haztegiko klimaren ondorioz izan daiteke.

Eusko Jaurlaritzako bideokonferentzia baten bidez, hiru batzorde fitosanitario nazionaletan ere izan

*establece las instrucciones que regulan el uso en aplicación terrestre, de los productos fitosanitarios formulados a base de óxido cuproso 75 por ciento [WG] P/P contra enfermedades criptogámicas defoliadoras en coníferas de montes*".

La DFA no realizó ningún tratamiento contra esta enfermedad pero varios propietarios/as sí que los han realizado en 2020, la mayoría coordinados por la Asociación de Forestalistas de Álava y ejecutados por la empresa gallega GALCA S.L. También trabajó la empresa BEITIA NATURLANAK S.L. Previo al tratamiento, los interesados enviaron la comunicación adjunta a la OF 303/2020 al Servicio de Montes.

El Servicio de Montes colaboró con NEIKER en el desarrollo del plan experimental aéreo con helicóptero en masas de pino con fertilizantes en Euskadi. Realizaron varios tratamientos en parcelas de Bizkaia y Gipuzkoa. En Araba se había previsto ejecutar tratamientos en montes particulares de Aramaio y patrimoniales de Luiaondo. Al final, por cuestiones meterológicas y logísticas se ejecutaron los trabajos sólo en 14,5 ha de Aramaio y quedaron sin hacer los cerca de 65 ha de Luiaondo. Se prevé poder tratar esta última superficie en el 2021. Por otro lado, se han seguido haciendo los trabajos de experimentación con distintos productos por medios terrestres en Murga.

Durante el año 2020 se ha seguido formando parte del Grupo Asesor Forestal en la que se tratan distintos asuntos relacionados con el ámbito forestal pero que se ha centrado, casi exclusivamente, en las enfermedades criptogámicas de las acículas citadas. Se ha seguido colaborando con los responsables de los Servicios de Montes de las Diputaciones de Gipuzkoa y Bizkaia, Gobierno Vasco, Asociación de Forestalistas del País Vasco, NEIKER, HAZI, USSE y Baskegur. Las estaquillas de *Cryptomeria japonica* que se trajeron el 2019 desde Limoges (Francia) siguen estando en el vivero en fase de engorde. Estas estaquillas están mostrando tener dificultades para arraigar y crecer, puede ser que sea debido al clima en la zona del vivero Eskalmendi de la DFA.

También se ha asistido por videoconferencia en el Gobierno Vasco a tres Comités Fitosanitarios

gara.

4. *Mendi Publikoetan telekomunikazio estazioek eragindako okupazioak*

2020an, Boveda (Bovedako AB), Pagolar (Laudioko Udala) eta Artziniega (Artziniegako AB) telekomunikazio zentroek onura publikoko mendiak okupatzeko administrazio emakidak onartu ziren.

*5. Laguntzak mendi publikoetan*

Baso Laguntzen Planaren bidez, hainbat motatako baso jarduerak lagundu ziren mendi publikoetan, deitutako neurriak medio; hona hemen xehetasunak:

- 04.3. neurria. *“Baso sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretan egindako inbertsioak”:*
  - Aurkeztutako eskaerak: 78.
  - Aldeko proposamena izan duten eskaerak: 78.
  - Ezezko proposamena izan duten eskaerak: batere ez
  - Emandako laguntzen zenbatekoa: 867.842,09 euro (552.071,93 euro 2020ko urtealdian, eta 315.770,16 euro 2021ekoan).
- 08.1 neurria: *"Baso eremuak basotzea eta sortzea":*
  - Aurkeztutako eskaerak: 16.
  - Aldeko proposamena izan duten eskaerak: 16.
  - Ezezko proposamena izan duten eskaerak: batere ez
  - Emandako laguntzen zenbatekoa: 139.142,25 euro, 2021. urtean.
- 08.3 neurria: *“Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea”.*
  - Aurkeztutako eskaerak: 20.
  - Aldeko proposamena izan duten eskaerak: 20.



Nacionales.

4. *Ocupaciones por estaciones de telecomunicaciones en Montes Públicos*

En el 2020 se aprobaron las concesiones administrativas de ocupaciones de Montes de Utilidad Pública por los centros de telecomunicaciones de Boveda (J.A. de Boveda), Pagolar (Ayto de Llodio) y Artziniega (J.A.de Artziniega).

*5. Ayudas en Montes Públicos*

A través del Plan de Ayudas Forestales, se auxiliaron actuaciones forestales de diversa índole en montes públicos en las distintas medidas convocadas y con el siguiente detalle:

- Medida M04.3. “*Inversiones en infraestructuras para el desarrollo, modernización o adaptación del sector Forestal”:*
  - Solicitudes presentadas: 78.
  - Solicitudes con propuesta positiva: 78.
  - Solicitudes con propuesta negativa: ninguna
  - Importe total de ayudas concedidas: 867.842,09 euros (552.071,93 en la anualidad 2020 y 315.770,16 en la de 2021)
- Medida M08.1: “*Forestación y creación de superficies forestales”:*
  - Solicitudes presentadas: 16.
  - Solicitudes con propuesta positiva: 16.
  - Solicitudes con propuesta negativa: ninguna
  - Importe total de ayudas concedidas: 139.142,25 euros, en la anualidad 2021.
- Medida M08.3: “*Prevención de los daños causados a los bosques por incendios, desastres naturales y catástrofes”*
  - Solicitudes presentadas: 20.
  - Solicitudes con propuesta positiva: 20.

- Ezezko proposamena izan duten eskaerak: batere ez
- Emandako laguntzen zenbatekoa: 99.581,48 euro, 2020. urtean.

- 08.4 neurria: *“Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea”.*
  - Aurkeztutako eskaerak: 1
  - Aldeko proposamena izan duten eskaerak: 1
  - Ezezko proposamena izan duten eskaerak: batere ez
  - Emandako laguntzen zenbatekoa: 8.400,00, 2020an (erref.: 105-00116/000 20120)
- 08.6 neurria: *“Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea edo baso potentziala hobetzen inbertitzea”.*
  - Aurkeztutako eskaerak: 2.
  - Aldeko proposamena izan duten eskaerak: 1
  - Ezezko proposamena izan duten eskaerak: batere ez
  - Emandako laguntzen zenbatekoa: 1.112,40 euro, 2020. urtean.
- *"Basoen kontserbazioa"* neurri nazionala
  - Aurkeztutako eskaerak: 3
  - Aldeko proposamena izan duten eskaerak: 3
  - Emandako laguntzen zenbatekoa: 13.539,60 euro, 2020ko urtealdiaren kargura.
  - Ezezko proposamena izan duten eskaerak: batere ez
- 08.5 neurria: *"Mugaketak eta mugarriak”*
  - Aurkeztutako eskaerak: 7
  - Aldeko proposamena izan duten eskaerak: 7
  - Ezezko proposamena izan duten eskaerak: batere ez

---

- Solicitudes con propuesta negativa: ninguna
- Importe total de ayudas concedidas: 99.581,48 euros en la anualidad 2020

- Medida M08.4.: “*Reparación de los daños causados a los bosques por incendios, desastres naturales y catástrofes*”
  - Solicitudes presentadas: 1
  - Solicitudes con propuesta positiva: 1
  - Solicitudes con propuesta negativa: ninguna
  - Importe total de ayudas concedidas: 8.400,00 en la anualidad 2020 (ref. contraído 105-00116/000 20120)
- Medida M08.6: “*Inversiones en tecnologías forestales y en transformación, movilización y comercialización forestales, o inversiones para la mejora del potencial forestal”*
  - Solicitudes presentadas: 2.
  - Solicitudes con propuesta positiva: 1
  - Solicitudes con propuesta negativa: ninguna
  - Importe total de ayudas concedidas: 1.112,40 euros en la anualidad 2020
- Medida nacional “*Conservación de bosques”*
  - Solicitudes presentadas: 3
  - Solicitudes con propuesta positiva: 3
  - Importe total de ayudas concedidas: 13.539,60 euros con cargo a la anualidad 2020
  - Solicitudes con propuesta negativa: ninguna
- Medida 08.5: “*Deslindes y Amojonamientos,*
  - Solicitudes presentadas: 7
  - Solicitudes con propuesta positiva: 7
  - Solicitudes con propuesta negativa: ninguna

· Emandako laguntzen zenbatekoa: 84.057,52 euro, 2021eko urtealdiaren kargura.

*6. Mendi pribatuen kudeaketa jasangarrirako laguntzak*

Baso Laguntzen Planaren bidez, hainbat motatako baso jarduerak lagundu ziren mendi publikoetan, deitutako neurriak medio; hona hemen xehetasunak:

- 08.1 neurria: *"Baso eremuak basotzea eta sortzea":*
  - Aurkeztutako eskaerak: 42 (32 gizon, 10 emakume)
  - Aldeko proposamena duten eskaerak; 36 (27 gizon, 9 emakume)
  - Ezezko proposamena izan duten eskaerak: 4 gizon eta 2 eskaeran atzera egin dutenak (gizon bat eta emakume bat)
  - Emandako laguntzen zenbatekoa: 111.470,20 euro, 2021eko urtealdiaren kargura.
- 08.3 neurria: *"Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea".*
  - Aurkeztutako eskaerak: 66 (35 gizon, 27 emakume eta beste 4 forma juridiko)
  - Aldeko proposamena izan duten eskaerak: 65 (34 gizon, 27 emakume eta beste 4 forma juridiko)
  - Ezezko proposamena izan duten eskaerak: gizon bat.
  - Emandako laguntzen zenbatekoa: 143.765,79 euro, 2020ko urtealdiaren kargura.
- 08.4 neurria: *"Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea".*
  - Aurkeztutako eskaerak: 1
  - Aldeko proposamena izan duten eskaerak: batere ez
- 08.6 neurria: "Basogintzako teknologietan eta

· Importe total de ayudas concedidas: 84.057,52 euros, con cargo a la anualidad 2021

*6. Ayudas a la Gestión Sostenible de los Montes particulares*

A través del Plan de Ayudas Forestales, se auxiliaron actuaciones forestales de diversa índole en montes públicos en las distintas medidas convocadas y con el siguiente detalle

- Medida M08.1: "*Forestación y creación de superficies forestales"*
  - Solicitudes presentadas: 42 (32 hombres, 10 mujeres)
  - Solicitudes con propuesta positiva; 36 (27 hombres, 9 mujeres)
  - Solicitudes con propuesta negativa: 4 hombres y 2 desistidos de su solicitud (1 hombre y 1 mujer)
  - Importe total de ayudas concedidas: 111.470,20 euros con cargo a la anualidad 2021
- Medida M08.3: " *Prevención de los daños causados a los bosques por incendios, desastres naturales y catástrofes"*
  - Solicitudes presentadas: 66 (35 hombres, 27 mujeres y 4 otras formas jurídicas)
  - Solicitudes con propuesta positiva: 65 (34 hombres, 27 mujeres y 4 otras formas Jurídicas)
  - Solicitudes con propuesta negativa: 1 hombre.
  - Importe total de ayudas concedidas: 143.765,79 euros con cargo a la anualidad 2020
- Medida M08.4.: "*Reparación de los daños causados a los bosques por incendios, desastres naturales y catástrofes"*
  - Solicitudes presentadas: 1
  - Solicitudes con propuesta positiva: ninguna
- Medida M08.6: "*Inversiones en tecnologías*

baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea edo baso potentziala hobetzen inbertitzea".

- Aurkeztutako eskaerak: 12 (6 gizon eta 6 emakume)
- Aldeko proposamena izan duten eskaerak: 11 (5 gizon eta 6 emakume)
- Atzera egindako eskaerak: 1, gizon bati dagokiona
- Emandako laguntzen zenbatekoa: 11.528,80 euro, 2020. urtean.

*8. <u>A FAk Eskalmendin daukan baso mintegia kudeatzea.</u>*

Arabako Foru Aldundiaren **baso haztegiari dagokionez**, landareak ekoizten jarraitu da, gure herrikideak mendi ingurunera hurbiltzea sustatzeko xedez, gure baso espezieak ezagutaraziz (zuhaixkak, zuhaitzak...) Arabako erakunde publikoek, kontzejuek, udalek, kuadrillek, ikastetxeek eta kultura elkarteek bultzatutako landaketen bidez. Beste helburu bat da ingurunera (kulturala, historikoa edo estrategikoa) egokitzeagatik baso interesa duten aleak edo populazioak identifikatzea eta ugaltzea, ereintza eta/edo ugalketa begetatiboen bidez, bereziki lurraldeko zirkuitu komertzialetan ez dauden berezitasun nabarmeneko espezieak.

Era berean, 2020an, Arkitektura Zerbitzuarekin lankidetzan, berritze lanak egin dira haztegiaren etxean, egiturak saneatzeko eta instalazio elektrikoak berritzeko.

Azkenik, haztegian 23.481 konifero eta hostozabal landare ekoitzi dira Arabako erakunde publikoek urtero landa ingurunean, hiri inguruan edo eremu degradatuetan egiten dituzten landaketen sustapen kanpainaren esku jartzeko, bai eta zuhaitzaren eguneko ospakizunei, eskola landaketei eta basozainek beren mugapean egiten dituzten landaketei erantzun egokia emateko ere.

*forestales y en transformación, movilización y comercialización forestales, o inversiones para la mejora del potencial forestal"*

- Solicitudes presentadas: 12 (6 hombres y 6 mujeres)
- Solicitudes con propuesta positiva: 11 (5 hombres y 6 mujeres)
- Solicitudes desistidas: 1 correspondiente a hombre
- Importe total de ayudas concedidas: 11.528,80 euros en la anualidad 2020

*8. <u>Gestión del vivero forestal de la DFA en Eskalmendi.</u>*

En cuanto al **vivero forestal** de la DFA, se ha continuado la producción de planta según el objetivo de fomentar el acercamiento de nuestros conciudadanos al medio montano a través del conocimiento de nuestras especies forestales, desde las arbustivas hasta las arbóreas, por medio de las plantaciones impulsadas por las entidades públicas alavesas, Concejos, Ayuntamientos, Cuadrillas, colegios y asociaciones culturales; así como el de identificar y reproducir individuos o poblaciones que tengan un interés forestal por su adaptación al medio en el que se encuentran, cultural, histórico, o estratégico, mediante siembra y/o reproducciones vegetativas, en especial, aquellas especies de marcada singularidad del territorio que no se encuentran en los circuitos comerciales.

Igualmente, en el año 2020, en colaboración con el Servicio de Arquitectura, se han acometido reformas en la casa del vivero consistentes en el saneamiento de estructuras y renovación de instalaciones eléctricas.

Finalmente, en el vivero se ha producido la cantidad de 23.481 plantas de coníferas y frondosas que se han puesto a disposición de la campaña de fomento de plantaciones que las Entidades públicas alavesas realizan anualmente, tanto en el medio rural como periurbano o áreas degradadas así como para atender las celebraciones del día del árbol, las plantaciones escolares, así mismo como para las llevadas a cabo por los Guardas Forestales en sus zonas de

demarcación.

*9. Erabilera aldaketen baimen espedienteak*

**Erabilera aldaketen 173 eskaera** izapidetu ziren lurralde historikoan, 2019an jasoriko eskaeren % 30 baino gehiago.

*10. Mozte baimenak mendi partikularretan.*

Titulartasun partikularreko mendi horietako aprobetxamenduaren kontrolaren zati gisa, zuhaitzak mozteko 666 baimen izapidetu ziren; beraz, jaitsiera neurritsua egon da aurreko urtearekin alderatuta. Horren ondorioz, radiata pinuaren 92.000 metro kubo zur atera ziren.

Ekintza horiek gauzatzeko, azpiprograma honek 3.388.819,26 euroko zuzkidura zuen, eta horietatik 2.544.495,59 euro gastatu ziren arestian adierazitako arrazoiengatik.

*11. Ehiza eta arrantza modu jasangarrian kudeatzea. Helburu programatikoen betetze maila.*

2020an, ehizaren eta arrantzaren jarduera Covid-19aren pandemiak markatu du. Martxoko lehen alarma egoeratik hona herritarrok jasan ditugun konfinamenduek eta murrizketek nabarmen mugatu dute ehizaren eta arrantzaren jarduera. Mugikortasun murrizketen eta bizi izandako ziurgabetasunaren ondorioz, ehiza eskaera gutxiago egin dira, programatutako jarduera asko bertan behera utzi dira, hala nola, ehiza larriko uxaldiak, ehiza eta arrantza txapelketak, askapenak, ehiztariaren azterketa, arrantza kontseilua, eta administrazio kudeaketan ere gorabeherak izan dira, esate baterako amuarrainaren barrutietako arrantza baimenen edo Kuartangoko ehiza barruti sozialeko oilagorren baimenen zenbatekoa itzuli behar izan baita.

**A. EHIZA:**

**1.- Ehizaren Lurralde Kontseilua eta Arabako Lurralde Historikoko Ehizari buruzko foru aginduak izapidetzea.**

Ehizaren Lurralde Kontseilua 2020ko otsailaren

*9. Expedientes de autorización de cambios de uso*

Se tramitaron 173 solicitudes de **cambios de uso** en el Territorio Histórico, lo que supuso un descenso de un 30% respecto a las solicitudes recibidas en el año 2019.

*10 Autorizaciones de corta en montes particulares.*

Como parte del control de los aprovechamientos en estos montes de titularidad particular, se tramitaron 666 autorizaciones de corta de arbolado, lo que supone un moderado ascenso respecto al año anterior. Esto supuso la extracción de unos 92.000 metros cúbicos de madera de la especie principal *Pinus Radiata.*

Para la ejecución de estas acciones, este subprograma tenía una dotación de 3.388.819,26 euros de los que se gastaron 2.544.495,59 euros por los motivos anteriormente indicados

*11. Gestionar de Forma Sostenible la Caza y la Pesca. Grado de cumplimiento de los objetivos programáticos.*

La actividad de la caza y la pesca durante este año 2020 ha estado marcado por la pandemia del Covid-19. Los sucesivos confinamientos y restricciones a los que hemos estado sometidos los ciudadanos desde el primer estado de alarma en el mes de marzo han limitado considerablemente la actividad de la caza y la pesca. Las restricciones de movilidad y la incertidumbre vivida se ha traducido en un menor número de solicitudes de caza, en la suspensión de muchas actividades programadas, como batidas de caza mayor, campeonatos de caza y de pesca, sueltas, examen del cazador, celebración del consejo de pesca, y complicaciones en la gestión administrativa al tener que devolver el importe por ejemplo de los permisos de pesca en los cotos de trucha o de los permisos de becadas en el coto social de Kuartango.

**A. CAZA:**

**1.- Consejo Territorial de Caza y tramitación Orden forales de caza del Territorio Histórico de Álava.**

El consejo Territorial de Caza se celebró el 20 de

20an egin zen.

**2.- Ehizari buruzko araudia. Arabako Lurralde Historikoko ehizari buruzko foru aginduak.**

Araban ehiza jarduera arautzeko, foru agindu bat argitaratzen da urtero, 8/2004 Foru Arauaren 32. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko ehizari buruzko 2/2011 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

Pilatutako esperientziak adierazten du zenbait alderdik, hala nola baldintza orokorrek, usoen eta birigarroen ohiko pasabideetako ehizak eta basurdearen, orkatzaren eta oreinaren ehizaren baldintza espezifikoek, ez dutela funtsezko aldaketarik jasaten ehiza jardueretan.

Horregatik, komenigarritzat jo da ehiza modalitate horiek denboran irauteko asmoarekin arautzeko arau bat ezartzea, ehiztariek errazago ezagutu eta egoki aplika ditzaten.

Arau hori **uztailaren 13ko 225/2020 Foru Agindua da, Arabako Lurralde Historikoan ehiza modalitateak arautzen dituen araudi orokorra ezartzen duena**, eta eranskin hauek ditu:

I. eranskina. Neurri orokorrak

II. eranskina. Uso migratzaileak eta birigarroak ohiko pasalekuetan ehizatzeko baldintza espezifikoak.

III. eranskina Basurdea (Sus scrofa) ehizatzeko baldintza espezifikoak.

IV. eranskina Oreina (Cervus elaphus) ehizatzeko baldintza espezifikoak.

V. eranskina Orkatza (Capreolus capreolus) ehizatzeko baldintza espezifikoak.

Bestalde, 2020-2021 kanpainan Arabako Lurralde Historikoan ehizan aritzea arautzen duen araudia **uztailaren 13ko 224/2020 Foru Aginduan** jasota dago. Agindu horren bidez, 2020-2021 kanpainan Arabako Lurralde Historikoan ehizan aritzea arautzen duen berariazko araudia ezartzen da.

Urtero ezartzen den agindua da, eta, bertan,



febrero de 2020.

**2.- Normativa de caza. Ordenes forales de caza del Territorio Histórico de Álava.**

Para regular la actividad cinegética en Álava se publica anualmente una orden foral en aplicación de lo establecido en el artículo 32 de la Norma Foral 8/2004 y el artículo 31 de la ley 2/2011de caza del País Vasco.

La experiencia acumulada indica que ciertas cuestiones como son las condiciones generales, la caza en pasos tradicionales de palomas y zorzales, y las condiciones específicas de la caza del jabalí, corzo y ciervo no sufren modificaciones sustanciales en los distintos ejercicios cinegéticos.

Es por ello que se ha considerado conveniente establecer una norma que regule estas modalidades de caza con vocación de permanencia en el tiempo, de tal modo que facilite a los cazadores su conocimiento y correcta aplicación.

Esta norma es la **Orden Foral 225/2020 de 13 de julio por la que se establece la normativa general que regula las distintas modalidades de caza en el Territorio Histórico de Álava,** y consta de lo siguientes anexos:

Anexo I Medidas generales.

Anexo II Condiciones específicas de caza en pasos tradicionales de palomas migratorias y zorzales.

Anexo III Condiciones específicas de caza del jabalí (Sus scrofa).

Anexo IV Condiciones específicas de caza del ciervo (Cervus elaphus).

Anexo V Condiciones específicas de caza del corzo (Capreolus capreolus).

Por otra parte, la normativa que regula el ejercicio de la caza en el Territorio Histórico de Álava durante la campaña 2020-2021 viene recogida en la **Orden Foral 224/2020 de 13 de julio por la que establece la normativa específica que regula el ejercicio de la caza en el Territorio Histórico de Álava durante la campaña 2020-2021.**

**Se trata de una orden anual,** en la que se

honako hauek zehaztu behar dira, gutxienez: ehizarako eta merkaturatzeko interesa duten espezieak, erregulazioak, ehiza garaiak, egunak eta ordu baliodunak, espezie bakoitzari eremu bakoitzean aplika dakizkiokeenak, betiere baimendutako modalitateak eta harrapaketak adierazita.

Foru izaerako beste araudi bat arautzen dutenak honako hauek dira:

8/2004 Foru Araua, ekainaren 14koa, Arabako Lurralde Historikoko Ehizari buruzkoa.

134/2017 Foru Agindua, apirilaren 7koa, ehiza espezieek eragindako kalteak kontrolatzeko neurriei buruzkoa.

48/2011 Foru Dekretua, ehiza espezieen ekoizpena, birpopulatzea eta askatzea arautzen duena, bai eta ehiza erakustaldietarako erabilera eta ehiza eremu industrialen eta trebakuntza eremuen funtzionamendua ere.

390/2002 Foru Agindua, ekainaren 26koa, untxiak suntsitzeko erabiltzen diren hudoak izateko behar diren administrazio baimenak arautzea onartzen duena.

39/2010 Foru Agindua, otsailaren 18koa, ehiza erabilerarako hudoak edukitzeko eskaerak aurkezteko epeak ezartzen dituena.

155/1999 Foru Agindua, urriaren 27koa, Arabako Lurralde Historikoko arku bidezko ehizaren araudia ezartzen duena.

**3.- Ehiza lurrak.  Ehiza barrutiak.**

Ehizan aritzeko, lurrak hiru kategoriatan sailkatzen dira:  ehiza lurrak (Araban, ehiza barrutiak), ehiza lurrak ez direnak (fauna babeslekuak eta ehiza debekualdiak) eta ehiza araubide bereziko lurrak (naturagune babestuak eta segurtasun eremuak).

Ehiza azalerari eta, beraz, **ehiza barrutiei dagokienez**, indarrean dauden barrutien kopurua 136koa da, eta guztira **285.837 ha-ko azalera** du.

determinarán, al menos, las especies de interés cinegético y comercializables, las regulaciones, las épocas, días y horas hábiles de caza aplicables a las distintas especies en las diversas zonas, con expresión de las distintas modalidades y capturas permitidas.

Otra normativa de carácter foral viene regulada por:

**La Norma Foral 8/2004 de 14 de junio**, de caza del Territorio Histórica de Alava.

**La Orden Foral 134/2017 de 7 de abril,** de medidas de control por daños producidos por especies cinegéticas.

**El Decreto Foral 48/2011** que regula la producción, repoblación y suelta de especies cinegéticas así como su uso para caza exhibición y el funcionamiento de las zonas industriales de caza y de las zonas de adiestramiento.

**La Orden Foral 390/2002, de 26 de junio,** por la que se aprueba la regulación de la concesión de autorizaciones administrativas para la tenencia de hurones destinados a la realización de descastes de conejos.

**La Orden Foral 39/2010, de 18 de febrero,** por la que se establece los plazos de presentación de las solicitudes de las autorizaciones de tenencia de hurones, destinados a usos cinegéticos.

**La Orden Foral 155/1999 de fecha de 27 de octubre, por la que se** establece la normativa que regirá el ejercicio de la **caza con arco** en el Territorio Histórico de Álava.

**3.- Terrenos cinegéticos. Cotos de Caza.**

A los efectos del ejercicio de la caza, los terrenos se clasifican en tres categorías: terrenos cinegéticos (en Alava constituida por cotos de caza), terrenos no cinegéticos (refugios de fauna y los vedados de caza) y terrenos de régimen cinegético especial (espacios naturales protegidos y zonas de seguridad).

En relación a la superficie cinegética, y por tanto a los **cotos de caza**, el número de acotados vigentes se mantiene estable en 136 con una superficie total

Ehiza azalerak 1.416 ha egin du gora, iaz baino zertxobait gehiago (284.421 ha).

AFAk bi lankidetza hitzarmenen bidez kudeatzen du ehiza, Araban dauden ehiza barrutien bi elkarterekin. Bata da ARABA CAZADORES GESTIÓN eta bestea ARTIO. Bien artean, lurralde historikoan aitortutako 136 barrutietatik 131 hartzen dituzte guztira.

2020. urtean, ARTIO barruti sozietateak eta ARAN aholkularitza teknikoak 57 barruti kudeatu dituzte guztira, 137.257 ha-ko azalera, eta ARABA GESTIÓN-ek 74 barruti, 137.319 ha-ko azalera. Ikus daitekeenez, bi elkarteen artean ehiza azalera osoaren % 96 kudeatzen da, gainerako azalera Kuartangoko barruti sozialaren (4.809 ha) eta Labraza, Okondo, Delika eta Tertangako barrutien (6.452 ha) artean banatuta dago.

Ehizarako ez diren lurrei dagokienez, debekatuta dago ehizan jardutea honako lur hauetan: ehizarako eta araubide berezirako ez diren edo faunaren babeslekutzat jotzen diren lurretan, bai eta beste lege aurreikuspen batzuen ondorioz debekualdia deklaratzen den lurretan ere.

Araban, ehizarako izendatu gabeko eremu batzuetan ezin da ehizatu, basurde jauzian ehizatzea izan ezik. Eremu horietan, nekazaritza kalteak direla eta, espezieen populazioa kontrolatzeko neurriak baimendu ahal izango dira, betiere lurraren titularrak eskatuta (itxaronaldiak, eskopetarik gabeko uxaldiak eta basurdearentzako kakoak, adibidez).

Azalera hori gutxi gorabehera 6.360 ha-tan mantentzen da, eta honakoak hartzen ditu gehienbat: Saratxo, Karanka-Mioma, Ermua-Larrea eta Subillana-Gasteizko Administrazio Batzarra eta Audikanako Administrazio Batzarra, Markinakoa eta La Serna, bai eta Berrozi, Limitado, Lacorzana eta Binasperiko esparru debekatuak ere. Gainera, faunaren babesleku gisa, honako hauek daude: Gasteizko Udalaren Kalikatxoko faunaren babeslekua, **451 ha**-koa; Arabako Foru Aldundiaren Garaioko Parke

de **285.837 ha**. La superficie cinegética ha crecido ligeramente en 1.416 ha, respecto a la del año pasado que se estimó en 284.421 ha.

La DFA gestiona la caza mediante dos convenios de colaboración con dos asociaciones de cotos de caza existentes en Álava. Una es - ARABA CAZADORES GESTIÓN y la otra ARTIO. Entre las dos abarcan un total de 131 acotados de los 136 acotados declarados en el Territorio Histórico.

Durante el año 2020 la Sociedad de cotos ARTIO, y su asesoría Técnica ARAN han gestionado un total de 57 cotos con una superficie de 137.257 ha, y ARABA GESTIÓN, 74 cotos con una superficie 137.319 ha. Como se observa, entre las dos asociaciones se gestiona el 96 % de la superficie cinegética total, el resto de la superficie está repartida entre el Coto Social de Kuartango con una superficie de 4.809 ha., y los cotos de Labraza, Okondo, Delika y Tertanga con una superficie total 6.452 ha.

En cuanto a los terrenos no cinegéticos, son vedados de caza los terrenos que no sean declarados cinegéticos, de régimen especial, o refugios de fauna, así como aquellos en los que se declare la veda por otras previsiones legales.

En Alava, existen zonas no declaradas cinegéticas, en las cuales no está permitida la caza, con la excepción de la caza al salto de jabalí. En estas zonas si se pueden autorizar medidas de control para la población de especies por daños a la agricultura, y siempre a solicitud del titular del terreno (esperas, batidas perros sin escopetas y ganchos para el jabalí, por ejemplo).

Esta superficie se mantiene más o menos estable en **6.360 ha** y comprende principalmente los terrenos de la Junta Administrativa de Saratxo, Caranca-Mioma, Hermua-Larrea, Subijana de Alava, la Junta Administrativa de Audikana, Junta Administrativa de Markina, La Serna, vedado de Berroci, vedado del Limitado, vedado de Lacorzana, y vedado de Viñaspre, Sel de Salinas. Además, como refugios de fauna, están el Refugio de fauna de Kalikatxo del Ayuntamiento de Vitoria Gasteiz de **451 ha**, el Parque provincial de Garaio

Probintziala, **1.483 ha**-koa, eta Zuhatzako Uharteko babeslekua.

Horrela izendatutako segurtasun eremuei dagokienez, Gasteizko segurtasun eremua (Arakako base militarra barne), Zurbanoko segurtasun eremua, Gasteizko Zuhatzuko segurtasun eremua eta Gojaingo industrialdeko Forondako aireportuko segurtasun eremua ditugu, 7.095 ha guztira.

de la DFA con **1.483 ha**. y el RF de la Isla de Zuaza.

